

...eta

kittto!

848 zkia.
2013-V-17



Euskal Jaiari ohore!

R.P.S. 5508

J. Etxeberria, 13
943 700 230

Beitu
Zentro Optikua



Audifonoetan

eskaintza berria





RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

DOKTOREAK: Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

hartz-zuritzea

*Irazabal klinikan
hartzak zurituko
dizugu saio bakarrean*



*Prezio
bereziaak!!!*

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 08.00-22.00 / Larunbatetan: 10.00-14.00

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Lanerako Gertu!

Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 25 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2013-2014

Eskeintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



ASTEAN ESANAK

"Kristalezko boladun igarleak ote garen uste du ekonomiaz ulertzen ez duen jendeak, eta ez da hori. Gauzek iragan hurbil horretan bezala jarraituz gero, abenduan halako hazkunde bat espero daitekeela aurreratu genezake, besterik ez"

(JOSEBA MADARIAGA, DEUSTUKO DEKANORDEA)

"Ez-herrietan bizi gara; orain ez da auzoetan ia ezer hasi eta amaitzen. Apenas dagoen auzo-lokarririk. Herrian zer pasatzen den Udalaren web-orrialdeetan informatzen gara. Bizilagunek ez dute ia ezer erabakitzen"

(PABLO SASTRE, IDAZLEA)

"Pesimismoak prestigio gehiago du, batez ere intelektuarki erreparatzen badiogu; baina, pesimista izateko, ziurtasun osoa izan behar duzu gauza horretaz. Gaur egun optimistagoa da eskuma; aldiz, ezkerria pesimistegia"

(DANIEL INNERARITY, PSIKOPEDAGOGOA)

"Haurrentzako etxeko lanek ez dituzte ahulari laguntzeko bere helburuak lortzen. Behe klaseko familietan ez dago inor haurrari etxeko lanetan laguntzeko. Goi mailakoetan, bestalde, asko lagunduko diote haurrari, nazkatu arte"

(FRANCESCO TONUCCI, PSIKOPEDAGOGOA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JASOGARRI.- Altzagarria, zeozer jasotzeko edo berdintzeko erabiltzen den gauza. "Mahaixari ipiñixozu jasogarrixa hanka honetan, dantzarik egin ez deixan".

JASUAN BIZI.- Ondo, eroso bizi. "Zer dala eta gaiztuak bizi dira jasuan ta ondasunez beteta?".

eskutitzak

COLISEOKO AURREALMENTA DELA-ETA

Joan den astelehenean Coliseoko takilla hainbat ikuskizunetarako sarrerak erosteko zabaldu zuten: Biraka, Ballet Eibarrés, Nerea Lodosaren ikuskizuna, bertsolaritza, Kezka... Jarduera larregi sarrerak egun bakar batean saltzeko, hobeto esanda, pare bat ordutan saltzeko. Oso ilara luzea egin zen eta hainbat lagun 21.30ak arte gelditu behar izan ziren sarrerak eskuratzeko. Takilla bakarra zegoen zabalik eta salmentaren erritmoa asko moteldu zuen horrek. EAJtik salmenta tartekatuago egitea eskatu diogu alderdi sozialistari, hau

da, aurrealmenta hainbat egunetan egitea. Erantzuna izan da horrek gastu handiagoa eragingo zuela, Coliseoko langileei gehiago ordaindu beharko litzaiekelako, baina gertatutakoa kontutan izanda, gastu horrek merezi duela uste dugu. Bi takillak zabaltzea eskatu dugunean makina bakarra dagoela erantzun digute. Salmenta bizkorrago egiteko beste makina bat erosi beharko litzatekeela uste dugu eta horrela jakinarazi diegu Udaleko Kultura alorreko arduradunei.

EIBARKO EAJ



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tirnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Karmelo Urdangarin

Errotondak

Hainbat herrialdean, errotondek, zirkulazioa erregulatzeko funtzioaz aparte, igaroten dugun zonaldearen aktibitate ekonomiko, kultural eta, batez ere, industrialaren informazioa ematen digute. Gure kasuan ez da halakorik ematen, eta kontuan hartu beharrekoa deritzot. Askotan entzun izan genion Ramiro Larrañagari, armagintza arloko ikerlari ezaguna eta hainbat libururen egileari, Maltzagako errotonda armaginen alegoria edo elementu bat kokatzeko leku aproposa izango zela. Askoz geroago desagertu zen Eibarren josteko makinaren fabrikazioa eta ez dugu Alfako milaka beharginak gogoratuko gaituen inolako oroitzapenik. Antzerako zeozer esan dezakegu Elgoibarri buruz, han ere San Pedroko Labe Garaiak desagertu baitziren inongo arrastorik laga barik. Bateren batek edo zeozerk jakinarazi beharko lieke belaunaldi berriei zelan eta zerekin bizi ahal izan ziren euren aurretik izandakoak: euren aiton-amon eta baita gurasoek ere. Aurrekoa Soralezera ere eraman dezakegu, bertan egin ziren kanoiekin, armagintzan gainera oso parte-hartze handia izan baitzuen. Mutrikuko kasua ere berezia da, antzina-antzinatik itsasoarekin duen harremanengatik. Mendarora ere zabal dezakegu aipua, hango txokolate eta erroskillekin, eta baita Debara ere, udatiarren etorrerarekin eta han eman zen hondartzaren erabileraren masiboarekin.

1'5 millioi gehiago inbersiñuetarako

Aste honetan egindako udalbatzak, PSE eta PP alderdixetako ordezkariaren aldeko bozteru esker, 2012ko aurrekontutik sobratzen zan dirua inbersiño barrixetarako erabili ahal izateko kreditu-aldaketa onartu dau. Iazko presupuestotik 1.588.086 euro sobran geratu dira eta hórretxek aurten erabiliko dittu Udalak, bestiak beste aurten aurreikusitta ez eguazen gastuak pagatzeko eta auzuetako bileretan jasotako proposamenetako batzueri erantzuteko neurrixak hartzeko. Hortik pagauko dittue, bestiak beste, kale batzuk asfaltatzeko pagau biharreko 200.000 euroak edo bariantian argiak ipintzeko ordainduko dittuen 70.000 euroak. Ipuuako foball zelaixaren bedarra kanbixatzeko Udalak egingo daben 150.000 eurotako inbersiña eta Txarakuako paso-nibela desagertarazteko 170.000 euroak be bertatik etarako dittue. Beste inbersiño txixago batzuk egitteko aukeria be eukiko dabe: 59.000 euro gastauko dittue informaziñora-ko ekipuetan, 35.000 euro wi-fi sistemian indar-



Egittekuen artian Ipuuako bedarra kanbixauko da.

tzen eta beste 30.000 euro Errebalen erabillean gaiñian herritarren parte-hartzerako zabalduko daben prozesuan erabiltzeko asmua azaldu dabe.

Sobran dagan dirua 2012xan gastau bariko partidetatik urten da: bestiak beste, diru hori iaz etxerik-etxerako laguntasunian, enplegurako planian, musika arluan, turismua indartzeko proiektuetan, Gizartekintza arluan eta Merkagune modukuetan erabiltzia eguan aurreikusitta, baiña ez ebenez gastau aurten beste kontu batzuetan gastatzia egokixagua begitandu jakue.

Errebal zelan erabili erabagitzeko prozesua

Udalak aditzera emon dabeenez, datorren astian bertan herritarren parte-hartzia izango daben prozesuari ekingo detsa, Errebal zelan erabili danen artian erabagitzeko. Horretarako monoDes-tudio enpresia eta M-etxea kolektibua kontratau dittue.

Aurkezpen publikua maiatzaren 21ian (martitzenian) egingo dabe, 20.30xetan udal-etxe-ko pleno aretuan eta horren ostian proiektuak eragin-dakuekin lehen kontaktuak hastia pentsatzen dabe. Urri-rako prozesua amaittuta ego-tia aurreikusten dabe.

Helburuak, bestiak beste, Errebalen inguruaren gaiñeko hausnarketia eragittia eta bertako erabillera eta kudeaketaren gaiñeko aukeriak aztertzea dirala aurreratu dabe. Horrekin batera, parte ezbar-diñen arteko adostuna lortzia espero dabe. Udaleko Gara-pen Ekonomikuaren arduria dakan Maria Jose Telleriak diñuaneez, "gure proposamenak jasotzen daben moduan, bestiak beste autobus geltoki barrixa Errebalen egittia eta ekipamendu polibalentia bertan ipintzia gustauko litxakigu. Edozelan be, hausnarketia eta bestelakuak parte-hartzerako metodueta adituak diran beste batzuk gidatuko dittue aurrerantzian, beti be Errebalendako proiektu egokixena lortzeko asmuari jarraituta".



Errebalen erabilleraren inguruko hausnarketia eragin nahi dau Udalak.

Artisautza eta jatekueri eskindutako azokia

Atzo zabaldu eben domekara arte martxan egongo dan V. Zapore-Artisautza Azokia Urkizuko parkian. Aurreko ediziñuetan Untzagan egin daben lez, oinguan be bertako sal-tzailliak Espaiñiako eta atzerriko hainbat lurraldetako artisautza eta orotariko produktu gastronomikuak eskinduko dittue.



Gaiñera, produktuetako batzuk ezagutzera emoteko zuzeneko erakustaldixak egingo dittuela aurreratu dabe. Barritasun modura, aurreko urtietan arrakasta haundixa euki daben olagarro-txosnarik ez dabe ipiñiko, aurreko asteburuan Galiziako jaixen harira nahikua olagarro jateko aukeria egon dalako

eta, horren orde, teterixia ipintzia egokixago ikusi dabe antolatzailliak. Horrekin batera, umiendako magia ikuskizunak eskintzeko asmua dake. Gaur, bixar eta etzi egun osuan zabalduko dabe ferixia, goizez 11.00etatik 14.30xetara eta arratsaldez 17.00etatik 22.00etara.

Birgaitze jasangarrirako ordenantza

Debegesa garapen agentziakuak, Ihobe-rekin alkarlanian, Debarrenian eraikin eta etxebizitzak birgaitzeko biharrak egitterakuan jasangarritasuna sustatzeko asmuarekin ordenantza idazteko biharrari ekin detse. Testuak jaso biharreko edukixak zihezteko, horretan inplikauta daguazten agente guztien parte-hartzia bultzatzeko asmua dake eta, horren harira, datorren asterako billeria deittu dabe: eraikuntzako profesionalak batzeko asmoz egingdako batzarra maiatzaren 22xan (eguztzenian) izango da, 09.00etan, Debegesaren egoitzan (Azittaingo industrialdian).



autuan

UNTZAGAKO JUBILATUAK

Untzagako jubilau etxeko tabernia alkilerrian eskintzen diharduela emon dabe aditzera. Taberniaren arduria hartzeko interesa dakenak jubilau etxeko buleguan jaso leikie bete-biharreko baldintzen gaiñeko dokumentaziñua, datorren astelehenian hasi eta ekaiñaren 7ra arte (12.00xetatik 13.30xetara 1. pisuan, liburutegixan).



1958-XAN JAIXOTAKUAK

Urrixaren 5ian alkartuko dira urte horretan jaixotakuak alkarrekin bazkaltzeko. Juateko asmua dakanak 75 euro sartu biharko dittu 2095 5035 00 91 12629103 kontu korrontian.



Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta



IMHn, Maiatzaren 25ean, 11:00etan Informazio Saioa



UNIBERTSITATE ESKOLA



etortzeko deitu 943744132ra / www.imh.es

DBH Ondoren?
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

BATXILERGOA Amaitzean? **GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 urte)**
eta lanera edo ikasten jarraitu...

... goi-mailako **Heziketa Zikloa** amaitu ondoren egiteko pentsatutako **INGENIARITZA DUALA** (alternantzia ikasi eta lan)

Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

Goi-maila (ALTERNANTZIAN ERE)

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produktioaren Programazioa
- Mekatronika industrialia

GRADU DUALA

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza

asteko

51.166

datua

ikusle hartu zittuan
Coliseuak 2012xan: 31.958,
150 zine-proiektzioetan;
6.469, 34 antzezlanetan;
7.138, 26 musika
ikuskitzetan; 4.731, herriko
taldien 16 ikuskizunetan; eta
870 bestelako emakizunetan.

Umiendako tallarra Museuen Egunian

Museuen Naziñoarteko Eguna gogoratuko da bixar (zapatua, hillak 18) eta hori ospatzeko jarduera berezixak antolatu dittue Portaleko 5. pisuan dagan Armagintzaren Museuan: oin dala aste batzuk egindakua izandako arrakastia ikusitta, atzera be "Made in Eibar" 7-10 urte bittarteko umiendako tallarra ipiñiko dabe mar txan museuan bertan, 17.00etatik aurrera. Tallarran parte hartzera animatzen diran umiak Eibarren beste saso batian egitten zirana zuzenian ezagutu eta modu berian eurak gauza barrixak sortzeko tartia eukiko dabe. Izan be, tallarraren helburuak gure herrixak industriari lotuta euki

eban iragana umieri ezagutze- ra emotia eta euren kreatibidadia piztia dirala diñue antolatzaillak eta horretarako erabiltzen daben formula memorixia+sorkuntza=giza aurrerapena da. Tallarra antolatzi az aparte, bixar museora sartziarren ez dabe ezer kobrauko. Eibarko museuak 2007xan zabaldu zittuan atiak lehelen goz, bakarrik armagintzari eskindutako tartian eta handik urte bira, 2009xan museuaren bigarren zatixan Eibarko in-

dustriari eskindutako tartiarekin osatu eben hasierako eskintza. Astelehen honetan bete dira hain zuzen be 4 urte museuak ibilbide bixak osorik eskintzen hasi zala. Museuak eskintzen dittuan aukeren artian, bestiak beste, 217 armak osatutako bildumaren bittartez armagintzaren historiari errepasua emon leikixo. Museuaren gaineko informaziñua, bestalde, www.armia-eibar.net webgurian eskuragarri dago.




Berriaren 10 urtiak ospatzeko ekitaldixa

Ekaiñaren 21ian Berriak hamar urte beteko dittu eta, ospatzeko eta, bide batez, proiektua bideragarri izatia posible egin daben guztieri eskerak emoteko, "Hamarnaka kontatzekoak gara" goiburuari jarraituta 30 kultur ekitaldi antolatu dittue, danak eskema berberari jarraituta. Egun osua hartuko daben amaiera festa, barriz, ekaiñaren 22xan egingo da, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. Bixen bittartian, maiatzaren 31n (barixakua) 20.30xetan Elgoibarko

Herriko Antzokixak 30 ekitaldixetako bat hartuko dau: "Zertan ari da Berria?" presentaziñuarekin hasi eta jarraixan hamar urtiak laburbiltzen dittuan bideua eta kultur ekitaldixa egingo dittue. Eskualde osorako pentsautako ekitaldixa izango da Elgoibarko hori. Gaiñera, beste herrietan errepikatuko dan ekitaldixari laguntzeko, Metrokoadroka sormen laborategixak 10. urteurrenaren harira preparamu daben "Zertarako hegoak" antezzlana eskinduko dau.

Eskillara mekanikuetan aurrezten

Herrixan daguazan eskillara mekanikuetako batzutan proba modura ipiñi eben "Stop&go" sistemian beste eskillara batzuetan erabiliko dabela emon dabe aditzera Udaletik, "horri esker konsumitzen daben energixia %30 jaisteko aukeria dagualako". Juan Gisasola - Zezenbiden, Romualdo Galdos-Santaiñesen eta Juan Antonio Moglearako eskillaretan egindako probari esker lortu dittuan emaitza onak animauta hartu dabe erabagixa eta hill honetan bertan Urki Kurutzekuako eta Jardiñeta kaleko eskillaretan (zatixetako batian ointxe eta beste zatixan ekaiñan) iñork erabiltzen ez dittuanian eskillarak automatikoki geratzia eragitten daben sistemian



Konsumitzen daben energixia %30 jaisteko aukeria dago.

ipiñiko dabela azaldu dabe. Urtia amaittu baiño lehen Jose Antonio Iturrioz, Legarre eta T. Anitua-Bustinduitarreneko eskilleretako batzuetan be gauza bera egittia dake aurreikusitta. Aurrezteko asmuari jarraituta, eskillaren inguruan oinguk baiño gitxiago gastatzen daben LED argixengaittik kanbixatzen juango dirala aurreratu dabe.





HAIZEA ZARRABE eta IÑIGO MUÑOA

Eibar ere plazara irtengo da bihar

Euskal Herriko eta atzerriko hiri askotan egingo duten moduan, Herrirak biharko egindako deiarekin bat egiteko aukera izango da gurean ere. Eibarko Herrirak hainbat ekitaldi antolatu ditu, jai giroan euskal presoek eskubideak errespetatzeko aldarria plazetaraino eramateko.

#M18 PLAZARA EIBARREN (BIHAR ZAPATUA, UNTZAGAN)

18.00.- Umeen jolasak. Puzgarriak, tailerrak, ipuin kontalaria...
Trikitilariak alaitutako pintxo-potea. **20.00.-** Jaialdi-ekitaldia.
Bertsolariak. Abeslariak. Eibarko hainbat taldek Muñoaren
olerki musikatuekin eta Zarraberen marrazkiek lagundutako
liburutxoarekin kaleratutako CD-a salgai egongo da.

Presoen errealitatera gerturatzeko asmoz, kartzelan dauden eibartar biren familiakoe-kin berba egin dugu: Ibon Muñoaren anaia den Iñigorekin eta Mikel Zarraberen iloba den Haizearekin. Familiako norbait kartzelan egoteak nola eragiten dien galdetuta, askorentzat arazo larrienetakoa den dispersioari erreferentzia zuzena eginda hasi dira berbetan: *"Bisita bakoitza urduritasunarekin bizi dugu. Barruan zain dagoena kezkatuta dago, benetan bisita ordua ailegatzean norbait aurkituko duen ala ez zalantza buruan bueltaka. Eta bisitan joandakoak alde egitean, etxera ondo ailegatuko den ala ez kezkaekin jarraitzen du. Eta kanpoan gaudenok ere kezkatuta bizi ditugu bisita bakoitzaren aurreko eta osteko orduak. Sakabanaketak presoak eta haren familia, biak zigortzen ditu eta, gainera, hori da asmoa".*

Presoa zein kartzelatan dagoen badauka bere garrantzia, besteak beste horrek baldintzatuko duelako bisitan joateko zenbat kilometro egin beharko diren. Zarrabe une honetan Teruelen dago eta bost bat ordutan bertara ailegatzeko moduan daude, baina Iñigok asteburu osoa eman behar du batetik bestera anaiari bisitan joaten zaion bakoitzean: *"Bizkaibusa goizeko 04.40-*

ak aldera hartuta, hortik Etxerat-ek antolatutako autobuse-ra aldatu, Puerto de Santa Mariaraino bidaia egin, anaia bisitatu eta bueltatu orduko ia domeka gaua da".

Sakabanaketarekin amaitzea eta euskal presoak Euskal Herrira gerturatzea da, hain zuzen ere, betidanik egin den aldarrikapen nagusienetakoa, baina eskaerak gizartearen babes zabalak izan arren ez da horren aldeko pauso handirik ikusi: *"Egia da barruko egoerak piska bat hobera egin zuela ETA-ren su-etenaren berri ematearekin batera. Bati baino gehiagori esan zioten 'orain beste presoek modukoa zara' eta antzerako beste batzuk, baina hortik aurrera ezer gutxi mugitu da gaia eta uste dugu badela horretarako sasoi".*

Kalera, 24 urteko zigorra osorik beteta

Eibarko preso bi hauen azken urteei errepasoak egiten hasita, Mikel Zarrabe Elkoroiribe (1960) 1978az geroztik dago Eibartik kanpora. 1989ko abenduaren 1ean Iparraldean atxilotu eta Frantzian Lasanté, Fresnes, Claivaux eta Le Muret espetxeetan batetik bestera ibili eta gero, 1995an Frantziako polizia Espainiakoari entregatu zion. Valdemoron eta Darocan zigorra betetzen egin eta gero,

gaur egun Teruelen dago, 2. gradu. 24 urteko semea dauka. Hamabostean behin joaten zaio bisitan, neska-lagunarekin batera. Aurtengo abenduan kalera irtengo da, hori bai, bete beharreko 24 urteko espetxe zigorra oso-osorik bete eta gero.

Ibon Muñoa Arizmendiari (1958) 2000. urteko urriaren 17an atxilotu zuten eta Valdemoro eta Kordobako espetxeetan egin eta gero, gaur egun Cádiz-en, Puerto de Santamariako kartzelan dago. Guraso biak, aita eta ama kartzelan zegoela hil zitzaizkion eta Eibarko Herrirakoek azaldutakoari jarraituta, *"hiletarako trasladoan bederatzi espetxe baino gehiago zapaldu behar izan zituen. Gainera, oso modu txarrean tratatu zuten, edateko ezer eman barik eta nondik nora zegoen jakiteko modurik ez zuela)".*

Muga bat bestearen atzetik

Euskal preso guztiei eragiten dien legeari jarraituta, egoeraren ideia osatzeko lagungarriak izan daitezkeen hainbat datu aipatu dizkigute: preso bakoitzak hilean 40 minutuko 3 edo 4 bisita, ordu eta erdi eta ordu bi bitarteko iraupena duen aurrez-aurrekoa (familiako norbaitekin) eta iraupen berbereko aurrez-aurreko intimoa izateko

eskubidea dauka. Sei hilabeterako balioa duten zerrendak osatzen dira, bisitan joango diren 10 lagunentzako datuak eta bisitetarako baimenak Entzutegi Nazionalako segurtasun-gune bereziak onartu behar ditu. Umeek ere NANA izan behar dute. Bestalde, bisitaria familiakoa edo bikotekidea dela ziurtatzeko agiri ofizialak baino ez dituzte onartzen (familia-liburua, ezkontza-agiria edo izatezko-bikoteari dagokiona).

Eskutitzei dagokienez, presoek astean gutun bi bidali ditzakete eta 5 minutuko 8 dei egiten lagatzen diete.

Bestelako muga batzuk ere badituzte: ikasketak ia beti gaztelaraz egin beharrekoak izaten dira eta materiala lortzeko oztopo ugari izaten dute. Ezin zaie CD-rik, artillerik... helarazi eta euren tokian izan ditzaketen liburu eta bestelakoak mugatuta daude. Eta iheslarien egoera ez da hobe, Herrirako ordezkariak diotenez: *"Eguneroko bizimoduari aurre egiteko zailtasun ugari daukate: hizkuntza, medikuak, dirua, bizilekua, lana, ikasketak... eta, jakina, horiei familia eta lagunekin harremana izateko dauzkaten oztopoak gehitu behar zaizkie. Gainera, egoera politikoak erabaltaldintzatuta bizi dira".*

Euskal Jaixak 48 urte beteko ditte aurten eta, krisixaren hatzaparretatik ihesi, bere sustraietara jo dau barriro. Gure herriko alkarte gastronomikuak ondo merezittako ospia dake eta aurten oin dala urte batzuetako ohitturari jarraituko detse eta hor izango dira laguntzen kantu-afariko eta herri-bazkariko janarixak prestatzen. Bi ekitaldi horietan izena emateko epia domekan amaittuko da eta jendia azkar ibilli biharko da txartelak eskuratzen, ez dira eta asko geratzen salgai. Bixar bertan hasiko da programaziñua, Besta Berri ikuskizunarekin, eta ixa datorren aste osua beteko dau; hori bai, betiko lez, zapatu eta domekan emongo dittu bere onenak.

Bixar Coliseoan 20.00etan izango dan dantza-ikus-kizunarekin hasiko da aurtengo Euskal Jaixa. Eta **martitzenian** izango dau jarraipena, Debemenen eskutik Kulturalian (19.00etan) **"Eibarko plazaren"** inguruko mahainguruarekin; hor basarritarren eta bezeruen arteko gogoetia egitteko asmua dago. Eta **eguenian**, leku berian, Markos Jimenok euskeriarekin jolas egitteko aukeria eskinduko desku, **palindromuen taillar**

Gero eta herrittarragua: EUSKAL JAIA

irekixarekin. Taillarra 18.00etan hasi eta ordu eta erdi inguru iraungo dau eta atzekoz aurrera be bardin irakortzen diran hitzekin egitten dau jokua, emaitza kuriosuak lortzeraño.

Zapatu goizetik gaberañio

Artisau eta basarritarren azokia goizeko 10.00etan hasi eta arratsaldeko 14.00xak arte egongo da ikusgai (eta erosgai) Torbio Etxebarria kalia. Eibart alkartiak eta Eibarko basarritarrak antolatzen daben ekitaldixan herriko 18 artisau, kanpoko zortzi eta zazpi basarritar izango dira. Ez da faltako, urtero lez, AEK-ren talo postua eta, eguerdiko 12.00xetatik aurrera, **bertsolarixen eta herri-kirolen** ordua izango da. "Oinguan ohiko aizkolarixen eta harri-jasotzailien orde, haiñ ezagunak ez diran modalidadiak ikusteko aukeria izango da", diñue antolatzailiak. Lasto jasotzia, ingudia eta burdia bihurtuko dira horko protagonista eta, aperitibo horren ondoren, eskolen arteko VI. herri-kirol lehiaketa jokatu da, "Mogel-Isasi, Aldatze eta



Klub Deportiboko eta Arrate Kultur Elkarteko ordezarixak Esther Kareaga Kultura ziñegotzixarekin. SILBIA HERNANDEZ

Itzioren parte-hartzeraekin". Gaztienak herri-kirolari gerturatzeko sasoi aproposa izaten da lehiaketa hori.

Arratsaldian, bestalde, **bertso-triki herri parrandak** urtengo dau Untzagako karpatik **18.30etan** eta, Hankamotxak Bertso

Eskolakuen eta Eibarko Trikitilarixen eskutik, kalez-kale ibilliko dira **kantu-afarixa** hasi arte. **22.00etan** hasiko dan kantu-afarixan, Adolfo Jainagak Josu Garate izango dau lagun kantuak egitterakuan eta, jarraixan, erromerixiarekin hasterakuan, Unai Narbaizak lagunduko detsa. Batzuk eta bestiak gaba giro paregabian luzatuko dabe.

Domekako egun haundixa

Domekia be ez da motz gertutuko eta eguardittik helduko detsa Euskal Jaiko programaziñuari. **12.00xetan** taldiak, gaiteruak, joaldunak eta Eibarko Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilarixak, danak Urkizun hasi eta Untzagan amaittuko dan **kalejiria** egingo dabe.

Behiñ Untzagara helduta, **Ezpalak jaialdixak** hartuko dau protagonismua, oinguan sorgindantzeri eskindutako saiuare-



Eibarko Klub Deportibuak antolatzen daben Euskal Jaixak mende erdixa beteko dau hamendik urte bira. FERNANDO RETOLAZA

kin. Zortzi taldek dantzatuko dabe oinguan, tartian Oslotik, Probenzantik eta Kataluñatik etorritakua, Euskal Herriko beste batzurekin eta, jakiña, Kezkarekin. 2006xan hasi zan Ezpalak eta, esaten deskuenez, "bakarrak gara munduan formatu berezi hau egitten, hau da, gai bat hartuta, horren inguruko adierazpenak islatzen". Modu horretan fondo komuna doiaz osatzen. Talde guztiak doñu berberarekin dantzatuko dabe: "Hori bai, bikotekidien arteko hasarraldixak erakusten daben dantzok ez dira danak bardin amaitzen: batzuetan besarkadekin eta muxuekin, bestietan tiroz", diñoskue Kezkakuak.

Herri-bazkarixa 14.30xetan hasiko da eta, bazkaldu ostian, Aiko taldiarekin egingo dan

erromerixiak eta larrain-dantza herrikuak emongo detse amaieria aurtengo ediziñuari. Larrain-dantza bi izango dira, bata Untzagan eta, azkena, Klub Deportibuaren aurrian.

Urratsa antolakuntzan

Euskal Jaixa antolatzen daben Klub Deportiboko taldetxuak jendia inplikatzia lortu dau aurtent eta herrittarragua bihurtu. Bide batez, gaiñera, kantu-afarixaren eta herri-bazkarixaren preziauak erdira jaitsi dittue: "Txirixo, Gazte Gogor, Ipurua, Jaiki, Karramarroak, Legarre Gain, Umbe, Usobide, Zatiña, Ospelak, Bide Alde, Amaña eta Batuak dira janarixa prestauko deskuenak kasu bixetan. Obereña harategixak eta Direña Banaketak be asko lagundu des-




dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia
2013ko maiatzak 25 eta 26 IRUÑEA - EIBAR

Ikuskizun paregabia bixar Coliseoan

Juan Antonio Urbeltz antropologo eta folkloristaren zuzendaritzapian eta Argia, Duguna, Maritzuli, Haritz eta Kezka dantza taldietako dantzari eta musikarixekin iritsiko da gure herrira Besta Berri ikuskizuna. Corpus Christiren inguruko festetan inspiratuta, hiru piezak osatutako emanaldixa da prestatutakua. Ikuskizunaren abiapuntua XVII. mendeko ezpata-dantzaren oroitzapenian aurkitzen da. Argia taldea, bestalde, 60.ko hamarkadaren erdialdian sortu zan eta, ordutik hona, Euskal herrixan ezinbesteko erreferentzixa izan da 25 urte baiñõ gahixagotan.

Internet bidez Coliseo antzokirako erosittako sarrerak T. Etxebarriako Kutxabank-en inprimatu leikez, aste honetan ipiñi dabe-eta makiñia; hori bai, sarrerak erosteko erabilittako txartela eraman bihar da sarrerak eskuratzeko. Modu horretan, ez dago Coliseoko txarteldegixaren ordutegi eta jende-illaren menpe egon biharrik.



cue", diño Mariano Lukek. "Bastian zein bestian 400 lagunian ipiñi dogu topia; gaur (haraiñegun) bazkarirako 35 txartel gertzen dira saltzeko eta afarirako 100. Iaz 270 lagun bildu giñan bakotxian". 160 lagun izango dira zerbitzen eta harrikua egitten,

zortzi lan-taldetan banatuta. Kostatzen dana kobratzen dabe beti eta aurtent merkiago izango da jendiaren eskuzabaltasunari esker. "Fernando Abanzabalegik egitten daben lana be errekonoziduko dogu noizbaitten", diño Lukek.

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA 30€


Hanka osoak + Izterondoak 90€

Masajeak

- Osteopatia
- Teknika metamorfikoak
- Masaje terapeutikoak
- Reflexologia
- Masajeak: Thai, Kaliforniarra, Balikoa



BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA



- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)

Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrequentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko **BONOAK** / Zona bat: 35 euro saioa



Aurpegi tratamenduak

Eguaztenean aurkeztu zuten Elgoibarren hilaren 25ean egingo duten danborradaren kartela. Nerea Oteiza 27 urteko eibartarrak lehiaketara aurkeztutako lana aukeratu dute epaimahaikoek 300 euroko saria jasotzeko eta egileak berak kontatu dizkigu kartelaren inguruko gorabeherak.

- Nolakoa da saria jaso duen kartela?

Ba beste kartel batzuekin konparatuz gero, nik egindakoa oso sinplea da, mezua oso modu erraz eta zuzenean aditzera eman nahi nuen. Horregatik, karteleko elementu garrantzitsuena makila biak dira eta osagarri moduan jaietako zapia eta danborra erabili ditut. Horiek guztiak fondo urdin baten gainean ipini ditut. Beste danborrada batzuetako karteletan danborrak izaten du indar gehien, baina nik hortik alendu nahi izan dut.

- Beste lehiaketa batzuetan parte hartu izan duzu? Horrelakoe-tarako zaletasunik daukazu?

Arkitektura ikasi dut eta orain ikasketa amaierako proiektuarekin dihardut. Asko-

tan jendeak pentsatzen du arkitektuentzat bakarrik eraikuntzari lotutako kontuak direla erakargarriak, baina eraikuntzatik aldentuta ere beste arlo batzuk landu daitezke eta lantzen ditugu. Umetan parte hartu izan dut beste lehiaketaren batean, baita saria jaso ere. Eta nagusitzean beste lan batzuk sortzen lagundu izan dut. Elgoibarko lehiaketari buruz zerbait irakurri eta parte hartzera animatu nintzen, beste barik.

- Zer izaten da zailena horrelako kartel bat sortu behar denean?

Jendeari erakargarria zer egingo zaion pentsatu behar duzu sarritan, agian hori izaten da zailena. Gainera nik zerbait sinple eta xumea egin nahi nuen eta, beste urte batzuetako lanak ikusita, horien estilotik alendu naiz eta lanak zelako harrera izango zuen beldur pixka bat banuen.


- Elgoibarko kaleetan zure kartela ikusteak ere errespetu modukoa emango dizu, ezta?

Bai, horretan ere pentsatu dut, zelako sentsazioa izango ote dudan tokiren batean lagunekin sartu eta nire kartelari begiratzean nola erreakzionatzen duten ikustean... horrek errespetua ematen du, bai.



Nerea Oteiza
(KARTEL IRABAZLEA)


"Mezua oso modu sinplean azaltzen ahalegindu naiz"



JUAN CARLOS ARMENTIA VIZUETE

-2013ko apirilaren 27an hil zen, 45 urterekin-

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.



MUSIKARI GAZTEAK etenbarik HAZTEN eta HEZTEN

GURE HERRIAN MUSIKAREKIKO ZALETASUNA GAZTEEN ARTEAN OSO ZABALDUTA da-goela begibistakoa da, musikari lotutako gairen bat ikasten diharduten haur eta gazteen kopuruari begiratu besterik ez dugu egin behar. Herrian dauden musika akademietako ikasleak ahaztu barik, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak berak gazte mordoa hartzen ditu asteko bost egunetan Portalea eraikineko klaseetan eta bertan ikasten dutenaren emaitza zuzenean entzuteko aukera izan dugu aste honetan bertan, eskolako taldeek Coliseoan ikasturte amaierako kontzertua eman baitzuten eguaztenean: Musika Hizkuntza ikasten dihardutenekin batera Txistulari Taldeak, Soinu Txiki Taldeak, Juan Bautista Gisasola Koruak, Xapop Taldeak, Orkestrak, Bandak, Punto de Mirak, Eskusoinu Taldeak eta



Face to Eye taldeak jardun zuten orotariko piezak zuzenean eskaintzen eta, urteroko martxari jarraituta, ekitaldiaren amaieran ikasleei diplomak banatu zizkieten.

Aste honetakoa ikasturte amaierako kontzertua izanda ere, datozen asteotan agenda bete-betea daukate musika eskolakoek: datorren astelehenean hasi eta hilaren 24ra arte egunero 17.30etatik aurrera ikasle guztien entzunaldiak hartuko ditu Portaleko areto nagusiak. Eta sanjuanetarako girozten joateko, ekainaren 12an (eguaztena) 18.00etan musika eskolako rock taldeek kontzertua emango dute Txal-txa Zelaian.

Ikasturte berrirako matrikulazioa

Eta ikasturtea agurtzarekin batera, kurtso berrirako matrikulazioa zabalduko dute: maiatzaren 27tik ekainaren 21era arte Musika Hizkuntzako maila guztietarako, korurako eta talde instrumentalera-ko izen-ematea egongo da zabalik. Epe hori amaituta bete gabeko lekurik geratuz gero, lekuak bete arte matrikulatzeko aukera izango dela adierazi dute musika eskolako arduradunek. 2012-2013 ikasturtean instrumenturen batean matrikulatuta egon eta instrumentu berberarekin jarraitu nahi duten ikasleek, berriz, matrikula maiatzaren 27tik

31ra arte bete beharko dute. 2012-2013 ikasturtean matrikulatuta egon diren eta instrumenturen batean lehenengoz matrikulatu nahi duten ikasleek, berriz, ekainaren 3tik 7ra arteko tarteak izango dute horretarako. Eta ikasturte honetan matrikulatuta egon diren eta bigarren instrumentu batean ere matrikulatu nahi duten ikasleek, musika eskolan lehenengoz izena eman nahi duen beste edozeinek lez, ekainaren 10etik 21era bete beharko dute matrikula. Informazio gehiago behar izanez gero, zuzenean musika eskolara jo (Portalean) edo 943708435 telefono zenbakira deitu daiteke.



Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS





Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

- Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·



RD 1581/2002
BUREAU VERITAS
Certification
Fi. Tanatólogos y Crematorios

AUTOBUS
zerBITZUA

maiatzak
26

Irteera:
09.30etan
Buelta:
19.30etan

9 eurotan

ibilaldia

Aldapa Leunduz
portugalete 2013

J.A. MOGEL IKASTOLAKO
GURASOEN ELKARTEA

...ETA KITTO!
EUSKARA ELKARTEA

LARRAITZ UGARTE*Mugikortasun eta Azpiegituren diputatua***“Bi hilabetetan
271.348 txartel
ezberdin erabili dira”**

Bi hilabete dira Mugi tarifa-sistema bateratua ezarri zela. Gure herrian, gainera, hainbat zailtasun izan ziren martxan jartzeko; hori dela-eta, Euskotrenekoa maiatzaren 6an abiatu zen Eibarren eta Udalbusarena ekainaren 4an da ezartzekoa. Guzti hori aprobetxatuz, Larraitz Ugarte Diputazioko arlo horretako diputatuarekin izan gara.

**- Zelan joan da ezartze-prozesua?**

Ongi joan da. Prozesuaren konplexutasuna kontutan hartzen badugu oso arrakastatsua izan dela esan dezakegu, iraultza bat garraio publikoaren ikuspegitik. Izan ere, Mugi ez da txartel bat, ez da ordainketa modu bat: Mugiri buruz dihardugunean Gipuzkoa osorako balio duen tarifa integrazioaz ari gara, garraio-modu desberdinetarako balio duen sistema bateratuz, eta horrelako sistema bat martxan jartzen lehenengo lurraldea izan da Gipuzkoa. Mugi martxan jartzeko aldaketa asko egin behar izan dira, operadore bakoitzak bere sistemak aldatu eta bateratu egin behar izan ditu, eta prozesu hori guztia arrakastaz egin da. Kudeaketa sistema berriak ez du apenas arazorik eman eta, ideia bat egiteko, sistema berria kargatu eta eguneratu behar izan da 364 autobusetan, Euskotreneko 30 geltokitan eta Renfeko 29 geltokitan.

- Zelan hartu dute herritarrak?

Uste dugu herritarrak oso pozik daudela sistema berriarekin. Azken batean Gipuzkoako edozein garraio publikotan ibiltzeko txartel bakarra nahikoa dute eta, gainera, lehenengo bidaiatik deskontuak dituzte. Tarifak bateratzeko garaian ere ahalegin handia egin da Garraio Agintaritzan osatzen dugun erakundearen aldetik; izan ere, operadore bakoitzak bere tarifak eta bere deskontuak zituen, eta guztiak bateratu behar izan dira tarifa integrazioa iristeko. Kasuistika oso zabala da, eta batzuetan lehenengo bidaiak lehen baino zentimo batzuk garestiagoak dira bidaiarientzat, eta beste kasu batzuetan lehenengo bidaiatik merkeagoak. Baina helburua argia izan da: garraio publiko gehien erabiltzen dutenak eta behar handiena dutenak mesedetzea.

- Zein motako arazoei egin behar izan diozue aurre? Konpondu dira?

Arazo desberdinak izan dira. Sistemaren kudeaketarekin lotutakoak oso-oso txikiak izan dira eta, gainera, ia berehala konpondu dira. Arazo gehiago izan dira txartelak tramitatzeko garaian, edo migrazioa egiteko garaian sortu direnak. Errentaren datua egiaztatzekeo garaian sortu ziren zailtasunak, batez ere gazteen kolektiboko parte diren multzo batekin; baina jarri zitzaion irtenbidea. Lehenengo egunetan arreta puntuetan ere aglomerazioak sortu ziren, eta giza baliabide gehiago jarri ziren jendearen eskaerari ahalik eta hobekien erantzuteko. Sortu diren neurrian arazoak konpontzen ahalegindu gara. Hala eta guztiz ere, ezartze prozesuan erabiltzaileek gurea jo dutenean %2 kasutan bakarrik izan da sistemaren lotutako arazoengatik.

- Zeintzuk geratzen dira konpontzeko?

Badaude oraindik findu beharreko kontuak; batez ere, intzidentzien jarraipenarekin lotutakoak. Kontutan izan behar da aurrez martxan zegoen sistema batetik abiatu garela, sistema horrek zenbait gabezi bazituela alor horretan eta, behin integrazioa gauzatu, aurretik zetozen funtzionamendu moduak hobetu behar ditugu. Etenik gabeko hobekuntza da gure helburua alor honetan ere.

- Zenbat txartel erabili dira orain arte? 400.000tik gorako kopurua zuzena da?

Mugi sistema martxan jarri zenetik, martxoaren 4tik, bi hilabetetan 271.348 txartel ezberdin erabili dira (Mugi zein Lurraldebus). Horiek guztiek izan dituzte deskontuak lehenengo bidaiatik; eta horietatik 56.500 erabiltzaileek kolektiboari dagozkien hobariak jaso dituzte. Alta emanda dau den txartelak bai dira 400.000 baino gehiago, baina horietatik guztiak ez dira erabiltzen. Lehen, adibidez, gerta zitezkeen pertsona batek bi txartel edukitzea...

- Zenbateko deskontuak eskaintzen ditu?

Lehenengo bidaiatik 20. bidaiara %45eko deskontua dute erabiltzaileek. 21. bidaiatik 50. bidaiara %56koa, eta 51.etik aurrera %90koa. Horretaz gain, aipagarriak dira garraio aldaketak. Operadore berean garraio-aldaketa eginez gero doakoa da, bidaiarik garestiena ordaintzen da eta merkeena doakoa da. Garraio-aldaketa intermodala izanez gero, bidaiarik garestiena ordainduko da eta merkeenaren %25: autobusetik trenera egindako aldaketan adibidez.

- Gure herrian -mugan egotearen desabantailak akaso- hainbat arazo izan dira Mugi ezartzeko? Zerk egiten gaitu ezberdin?

Garraio Agintaritzan osatzen dugun gure erakundeak martxoaren 4ko data erabaki genuenean norberak berari dagozkion garraio-moduetan zegozkion aldaketak egiteko konpromisoa hartu zuen. Eguna iritsita, ordea, Euskotreneko makinak ez zeuden eguneratuta eta horrek ekarri du Eibarren Mugiren erabilera atzeratzea. Zorionez, dagoeneko makina horiek behar bezala jarrita daude, eta erabili daiteke Euskotreneko trenetan ere. Udalbusaren kasua ez dago inongo arazoarekin lotua. Garraio Agintaritzako kide ez diren udalen kasuan ez zegoen aurreikusita garraio zerbitzuak martxoaren 4an integratzea. Hauek epe ezberdinak aurreikusten zituzten. Mugan egonik zerbitzuekin maiz gertatzen da ondoko lurraldearekin partekatzea. Kasu honetan Barik ordainketa txartela erabiltzeko prestatuta zeuden makinak, baina ez Mugia erabiltzeko. Orain lortu da sistema bateragarria izatea biak erabiltzeko.

- Edozein arazo dela, nora jo behar dute interesatuek?

Telefono bidezko arreta **943 000 117**, eta interneteko zerbitzua ere erabili daiteke, **www.mugipuzkoa.com** web orrialdearen bidez.

etxe apainketa



gehigarria

Bakoitzaren neurrirako proiektuak



aur egun asko zabaldu da dekoratzaile profesionali etxebizitzaren inguruko proiektua eskatzeko ohitura. Horrelakoe-tan profesionalak ondo baino hobeto jakin ohi dute euren lana nola egin behar duten, baina, hala ere, norberak ideia batzuk aldeztu aurretik argi izatea ez da soberan izango. Izan ere, etxebizitzan bizi izango denaren arabera, modu batekoa edo beste batekoa izango da etxea.

Dekoratzaile guztiek, lehenengo eta behin, etxebizitzan biziko den jendearen inguruko oinarrizko informazioa batzeko ahalegina egiten dute: bizitza-estiloa, egoera ekonomikoa, gustuak... Datu orokorrak izanda ere, hortik lortutako informazioa oso lagungarria izango da proiektu egokia sortzeko orduan. Aurreproiektuak lau atal nagusi izan ohi ditu:

• **Proiektu teknikoa:** eraikuntza arloko guztia sartuko da horretan. Hormak, sabaiak, eskailerak... Horrez gain, argiztapena, elektrizitatea, kalefakzioa, aire-girrotua, isolamendua eta bestelakoak no-

la kokatu arlo horretan jasoko da. Planoak, erabiliko diren materialak... horiek guztiak aldeztu aurretik ondo zehaztea komeni izaten da.

• **Dekorazio-proiektua:** lamina grafikoz osatu ohi da. Adibidez, altzariekin jantzitako solairuak edo getetako banaketa jasoko dituzten laminekin.

• **Memoria:** idatzizko dokumentu horretan bete beharreko baldintzak jasotzen dituzte. Bestek beste materialak, instalazioak eta entrega-epaiek zehaztu ohi dituzte idatzian.

• **Aurrekontua:** legeak dioenari jarraitzen dion ekonomia-estudioa da, azken batean. Erabilitako materialen arabera, aldaketa txikiak onartzen ditu, baina askoz gehiagorik ez.

Horrez gain, gaur egun familia mota asko dago eta bizitzeko modu ezberdinak. Horregatik, etxebizitza norberak



behar izango duenari ahalik eta modurik egokienean moldatu ahal izateko, kontuan izan behar da etxebizitza horretan nor eta nola bizi izango den: familia bat izango den, lagun bakarrarentzat etxebizitza izango den, bikote bat baino ez den biziko ala, aldiz, bizitzeko eta lanerako etxebizitza izango den. Hortik aurrera aukera amaigabeko zerrendak zabaltzen joango dira.

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

Bidebarrieta, 28 - behea Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358
E-maila: ventanas.ona@gmail.com



AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA



Diproca Ateen erakusketa



Etxe-erreformatan 30 urtetik gorako esperientzia.
Ateak, armairuak, oholtzak, ...
Salmenta puntu ugari inguruko zonaldean.

bizilekueetan adituak
Diproca ATEAK

eibar@diproca.com Isasi, 17 -behea- (Eibar)

Tfnoa. 943 10 83 00 Faxa. 943 10 83 02



EPOCA-GORO

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA

attrezzo

PROIEKTUAK ERREFORMAK DEKORAZIOA



Arragueta, 7 Tel. 943 127 196
attrezzodecoracion@gmail.com

F. PASCUAL

ARROZTEGIA - EBANISTERIA

SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK

Arane, 6
EIBAR

943 20 61 64

943 17 19 73



**ARMAIRU
ENPOTRATUAK**

- Zur mota guztietan
- Zure dekoraziora egokitutako soluzioak

**SUKALDE
ALTZARIAK**

- Fabrikatzaileak gara
- 30 urtetik gorako esperientzia

www.cocinaspascual.com



Zubiaurre, 36-38
ERMUA
943 17 68 28



**VIRGINIA
PASCUAL**

*gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria*

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxe: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

KOLEGIATU ZKIA: 580BI

mokka

ERREFORMAK
DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BAINUAK
ALTZARIAK

C/ SAN AGUSTIN 5. TLF: 943 530637

ERREFORMAK DEKORAZIOA PROIEKTUAK ALTZARIAK

MAMACAS

Ego-Gain, 4 tel. 943 12 13 86 mamacas@euskalnet.net

proiektuak / dekorazioa / antzinakoak
altzariak / vintage / industria altzariak

jardiñeta, 14 behea eskuma / 656 75 64 85 / 1964.virginia@gmail.com / [facebook](https://www.facebook.com/1964.virginia)

Sukaldeak, praktikotasuna eta diseinua bateratzen

Baserrietan izaten diren sukalde handiek kaleko etxeetan ere sukalde handiak egiteko ohitura indartu zuten, "bizitza erdia sukaldean egiten dugu" esaten zen orduan. 70. hamarkadatik aurrera sukaldeak txikitzen hasi ziren, baina denborekin elektrogailuek gero eta leku gehiago behar izan dute. Egongelan egiten da gaur egun denbora asko, baina baita sukaldean ere. Azken aldian, sukalde handia ezin denean egin, jangela edo egongelarekin batzeko ohiturak gero eta indar handiagoa hartu du. Horrekin batera sukaldeen diseinua guztiz aldatu behar izan da.

Sukaldeak gero eta argitsuagoak izan behar dira, zuriak eta kolore biziek, altzari lakatuak eskaintzen dituzten aukera guztiek, sukalde funtzionalak, baina diseinuzkoak uztartzeko aukera ezinhobea eskaintzen dute. Marmola eta "silestonea" lantzeko moduak hobetu eta gaur egun hormak ere horrelako harriekin ipintzen dira, garbitasunerako dituzten abantailak aprobetxatzea helburu. Gainera, bai marmole-



tan, bai silestone modukoetan edozein kolore lortu daiteke gaur egun, altzari lakatuak kolore jokoak sortuz, etxean egiten den moduan, askotan kontraste handiak lortuaz.

Egongela eta logeletan pasatzen den moduan, zuriak eta beltzak indar handia lortu dute sukaldeen diseinuan

ere, elektragailuak metal kolorekoak jarri eta argiztapen bereziarekin, sukalde zabalak lortzea izaten da helburu. Sukalderako osagarriak aukeratu, koloreak han eta hemen, gaur egun dekorazioa aukeratzeko orduan lantzen den lehenengo txoketako da sukalde.

www.irazabal.net



irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

KONFIANTZAZko enpresa
KALITATEZko lanak
bezeroarekiko **ARRETAZ** eginda



IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA



Zure ingurunea (etxea, bulegoa, tailerra...) aldatu nahi baduzu, **GUK LAGUNDUKO DIZUGU...** gustorago bititzen eta etorkizun hobegoaz gozatzen.

IRAZABAL-EKIN ELKARLANEAN JARDUNEZ GERO, HARRO ESAN AHAL IZANGO DUZU:

"Hau da nik nahi nuena"



 **BENICOB** 
ETXEKO TRESNAK – SUKALDEKO ALTZARIAK
 Juan Gisasola, 12-14 benicoba@terra.es
 Tfnoak. 943 20 39 02 943 70 13 95



ulmar
 S.L.

 construcciones
 metálicas

Txonta, 30 - 1.a eta behea
 Tel. 943 12 13 67
 Faxa. 943 12 01 50
 www.ulmar.net
 info@ulmar.net

ERAKUSKETA:
 Urkizu, 26 (EIBAR)
 Tel 943 12 74 01

Eraikuntza metalikoak
Aluminiozko eta PVCko Aroztegia



EKAIN: Munduko kolorea
 APALATEGI AUZOA, 2



Tel. 943 821 325
 Faxa. 943 821 326
 ekain@ekain2000.com
 www.pinturasekain.com

-  **PINTURA**
-  **ZORUAK**
-  **PAPER PINTATUAK**
-  **ALFONBRAK**
-  **IZARAK ETA EDREDOIAK**
-  **BURDINDEGIA**



Indarrez zapaldu



txebizitza baten barruan elementu guztiek betetzen dute toki eta funtzioaren bat eta horiek ematen diote nortasuna, azken batean. Hormek, altzariak... gure arreta eskatzen dute, baina zapaldu behar dugun zoruari erreparatzea ez dago gaizki. Izan ere, lehenago aipatu ditugun elementuak bezain garrantzitsua da gure oinen azpian egongo den hori.

Dirua arazoa ez den kasuetan, marmola eta iztukadura erabilia gure etxebizitza jauregi baten pare laga dezakegu. Hori bai, horiek aukeratuz gero, argi izan garesti irtengo zaizuela, garesti bezain dotoreak dira-eta. Gainera, duten edertasun guztia agerian gera dadin, espazio zabal eta argietan kokatzea komeni izaten da.

ONA, EDERRA ETA MERKEA

Baina poltsiko guztiek ezin diote horrelako aurrekontuari aurre egin eta, normala denez, aukera merkeagoak ere badaude: kortxoak eta ekonomia ahulagoak askoz ere hobeto moldatzen dira elkarrekin eta beste abantaila ba-

tzuk ere badauzka. Arina da, hezetasunari aurre egiteko orduan primerakoa eta, hori gutxi balitz, isolatzaile ezin-hobeak da soinu eta tenperarentzat. Beraz, musikazaleen kasuan dudarik ez izan: instrumenturen batekin praktikatu nahi dutenentzat edo, beste barik, musika ekipoa astintzearen aldekoentzat aukerarik egokiena da eta inguruan bizi direnek eskertu egingo dute. Gainera gero eta efektu ederragoak lortzen dira kortxoari esker.

Granitoak ia estilo guztiekin bat egiteko erreztasun ikaragarria du: baserri-inguruetan oso egokiak dira bere indarra eta gogortasuna, eta etxebizitza modernoagoetan, berriz, itxura soil eta dotorea lortzeko oso aproposa da.

Eta egurrari buruz zer esan? Ba, granitoarekin gertatzen den bezala, estilo guztiekin bat egiten duela. Aldez aurretik berniza emanda edo, beste barik, naturalean eros daitezke egur-listoiak,



gero norberak nahi duen amaiera aukeratzeko. Edozein gelatan ipini daiteke, gainera: logela, egongela zein bainugela, denetan ondo emango du.

Azulejuak, bestalde, beti kontuan hartu behar dira, ahaztu ezin dugun 'klasikoak' dira. Gaur egun merkatuan dauden mosaiko eta bestelakoak esker hamaika aukera ematen dute eta ez ahaztu garbitzeko errezak izaten direla.

atelier 11
ARKITEKTURA
& VINTAGE

proiektuak ERREFORMAK dekorazioa diseinua

www.atelier-11.es 688 681 604
Julian Etxeberria 11 943 254 356

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK

LOKALAK
ETXEBIZITZAK

Arragueta, 12 EIBAR Tel. 943 20 06 98
ELGOIBAR Errosario, 15 Tel. 943 74 40 19

1. mailara igotzeko aukera bi waterpoloan



Orbean jokaturako partiduan Getxori 12-4 irabazi eta gero, Urbat-Urkotronikekoek beste partidu bat irabazi beharko dute Bizkaia aldean Euskadi Nafarroa Kantabria multzoko 1. mailara igotzeko. Asteburuan irabazten badute maila igoko dute eta, bestela, beste aukera bat izango dute, orduan ere Getxon. Taldeak aspaldi egindako partidurik onenetakoa jokatu zuen eta Basterrika (4 golekin) eta Recio (3rekin) nabarmendu ziren.

Pilotako Udaberriko hamar partidu asteburuan

Horietatik sei gurean jokatu dira gainera: gaur hiru Astelenan eta bihar beste hiru Kiroldegian. Gaurko jaialdia 19.15etan hasiko da, honako neurketekin: gazte mailan, Narbaiza Zumarragako Izagirreraren aurka eta Velasco Lazkaoko Rezustaren kontra eta, amaitzeko, helduetan Unamunzaga Alegiako Erauskin aurkari duela. Bihar 16.15etatik aurrera, Iriondo-Ibarluzea bikoteak Urretxukoari egingo dio aurre eta, jarraian, helduetan Bengoetxeak Alegiako Alonsoren aurka jardungo du eta, azkenik, gaztetan Ruizek Andoaingo Irisarriekin neurtuko ditu indarrak. Klub Deportiboko ordezkariak beste lau partidu izango dituzte Eibartik kanpo.

Deporrekoak garaile Erlaitzeko bertikalean

Igor Fernandezek, Juan Ramon Rodriguezek eta Aitor Lameirasek osatutako hirukoteak irabazi zuen aurreko zapa-tuan proba horretako taldekako sailkapena. Domekan, bestalde, 22 kilometroko lasterketan taldeko lau ordezkari izan ziren eta, bi egunetako konbinatuan, Igor Fernandezek 8. postuan amaitu zuen. Edu de Miguelek, bere aldetik, zazpigarren amaitu zuen Gasteizko maratoian.



Racing B - Eibar domekan

Garitanoren taldeak La Alberician jokatu du etzi, 18.00etatik aurrera, ligako azken jardunaldian. Santanderreko taldeak mailari eustea du jokoan; Eibar, aldiz, igoera fasea prestatzen hasiko da eta, berritasunen artean, Añibarro defentsaren buelta izan daiteke berririk onena: hilabete bi eman ditu lesionatuta taldeko kapitainak. Partidurako bajen artean, Arruabarrena, Arregi, Iruretagoiena atezaina, Del Olmo eta Bóveda daude.

Eibar Rugby Taldearen denboraldi amaiera



Senior taldeak zilarrezko mailan meritu handiko 5. postua eskuratu eta gero, apirilko azken asteburuan Multikiroletako azken jardunaldian Unben izan ziren 500 ume inguruk ondo erakusten du errugbia sasoiako dagoela gure herrian. Orain kluba Sanjuanetako jaien aurreko astean egiten den Garagardo Jaia (Untzagako karpan) prestatzen dihardu. Bestalde, El Corte Ingles-arekin batera egindako zozketan, Agustin Aranzabal izan zen irabazlea: berarendako izango da bi lagunentzako zazpi egunetako kruzeroa.

943 20 37 15 **Ibarkurutze, 5**

altzariak eta koltxoak

Karlos

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 **ZULOAGATARREN, 7**

Asteburu garrantzitsua Urkiko talde gazteenentzat

Kadete eta infantil maila-taldeen neurketa garrantzitsuei egin beharko diete aurre asteburuan. Horrela, 1. mailakoak, Oiartzunen 0-3 irabazi eta gero, 2. postua lortu du eta etxean Villabonaren aurka jokatu beharreko parti-

duaren emaitzaren arabera maila igotzeko aukera izango du. Infantiletan, 1. mailako taldeak 1-3 irabazi zuen Idiazabalena eta, emaitza horrekin, Oreretaren aurka jokatu du bihar Gipuzkoako finalean, Matigoxotegin.



Infantil mailako taldea bere multzoko txapeliduna izan da.

Altuna eta Ziaren onenak Euskadiko triatloi txapelketan

Aurreko zapatuan Deban jokatuako sprint distantziako Euskadiko Triatloi txapelketan, Delteco Eibar taldeko bederatzitaordez kari izan ziren eta euretako bik (Ane Ziarenek 23 urtetik azpikoaren artean eta Alejandro Altunak betereanoen 2. mailan) txapela jantzi zuten euren mailetan. Peio Osorok, bestalde, 10. postua lortu zuen sailkapen absolutuan.



Egun berean Oskar Castrillok (argazkian) Kataluniako X. Ironcat-en hartu zuen parte, 58. postuan sailkatzeko: 3.800 metro bete zituen igerian, 180 km bizikletan eta 42 km korrika.

Mendi ikastaroak

Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta, ekainaren 1ean eta 2an erreka zintzurren jaitsierako ikastaroa egingo da Fago eta Oza aldean. Hor amildegi errazak segurtasunez eta autonomiaz jaisteaz aparte, ur biziaren sokarekin ibiltzeko teknika aurreratuak erakutsiko dira. Hilabete horretan espeleologia ikastaroa ere eskainiko da, Aralarren egin beharrekoa. Informazio gehiagorako <http://www.gmf-fgm.org/main.php> helbidera jo dezakezue.



Alebin eta infantil mailako taldekoak, T. Nagornaia eta S. Prietorekin.

Ipuruako gimnastak bikain Gipuzkoako txapelketan

Iazko emaitzak hobetuz, alebin mailako taldeak urrezkoa eskuratu zuen Ordizian jokatuako Gipuzkoako txapelketan, hiru pelotekin egindako ariketaz baliatuz. Infantil mailako taldeak, bestalde, brontzekoa eskuratu zuen bost arokin. Banakako txapelketan, Arrate Baroja eta Irati Lasarte bigarrenak izan ziren infantiletan eta alebinetan, hurrenez hurren, eta Irea del Rey 3.a. Eta federatuen mailan, Ipuruakoek ondo baliatu zuten Euskadiko taldekako txapelketa, ekainaren 20tik 25era jokatu diren Espainiako txapelketetarako txartela eskuratzeko.



Eskubaloia jain zozketatu zen saskiaren irabazlea. Port Aventura-ko bidaiaren saria atera gabe dago eta hilaren 20an amaituko da epea eskuratzeko (8.995 da saritutako zenbakia).

Eibartarrek Ereintza garaitu zuten Gipuzkoako Kopan

Eibartarrek ez zuten lan erraza izan 2. mailan diharduen Ereintzari irabazteko, partidu guztian aurretik joan arren. Gipuzkoako Kopako bigarren jardunaldian Usurbilgo Atez-atekoari egingo diote bisita -hori ere 2. mailakoa- eta, emaitza aldekoa bada, seguruenik Ereintza Aguaplast-en aurka egokituko zaie eibarta-

rei Kopako finala jokatzeko. Aguaplastek Ohorezko B mailan jokatu du aurtengo denboraldia, Eibar Eskubaloia-aren goragoko mailan.

Harrobiko taldeen artean, infantil mutilen Melfun taldeak 26-24 irabazi zuen Elgoibarraren probintziako txapelketako finalurrekoan eta asteburuan final handian izango da.

Hiru domina jiu-jitsuko Madrilgo Openean

Kalamua judo klubeko Neka-ne Muguruzak borroka guztiak irabazi zituen denbora amaitu baino lehen eta, horrela, Villaviciosan jokaturako Opena bereganatu zuen kadete mailan. Julen Ramon kadeteetan eta Eneko Lores juniorretan finalak jokatzeko pauso batera geratu ziren eta brontzezko domina banarekin konformatu behar izan ziren. Muguruza eta Lores berriro bueltatuko dira Madrilerka kata modalitateko Madrilgo saria jokatzera; Manu Agirrek, bestalde, Espainiako txapelketen finalak arbitratuko ditu bihar eta etzi A Coruña.



Debarrena garaipenetik gertu Bidasoako Itzulian

Foot Italia Toscanako taldearekin osatutako talde mistoak lan ona egin zuen Bidasoako Itzulian eta, horrela, Davide Martinelli Chetout irabazlearengandik gorpil erdira sartu zen helmugan lehenengo etapan; bigarren ere, 6.a izan zen. Hirugarren etapan, bestalde, ia ehun kilometro irau zuen ihesaldian izan ziren Debarreneko italiarrak, baina atzetik Caja Ruralek egindako lanak bertan behera bota zuen egindako ahalegina. Esperientzia positiboa izan da Klub Deportiboko taldearentzat eta hurrengo hilabeteetan ere bide horretatik jarraitzea da arduradunen asmoa.



...

berriak

FOBALL ZALETUA

Behin Liga amaituta, Kopa torneoan sartuta daude foball zaletuen taldeak. Final laurdenak gaur eta bihar jokatu dira, honako partiduekin: gaur, EzDok vs Fontaneria Mujika (09.00etan) eta Txoko vs Esmorga Akara (10.30etan); eta bihar, Alkideba vs Koskor (09.00etan) eta Garajes Garcia.com Areto (10.30etan). Hurrengo zapatuan, hilaren 25ean, finalerdiak jokatu dira eta ekainaren 1ean, bestalde, finala 10.30etatik aurrera. Ondoren denboraldiiko sariak banatuko dira.

Ruibalek igoera kanporaketa jokatu du

Eibarko saskibaloit taldeak ondo kostata irabazi zion azken jardunaldian Zarauzko Leioak Zasti taldeari (73-55) eta, garaipen horri esker, igoera kanporaketak jokatuzeko aukera izango du. Elgoibarko Viento Sur izango du aurkari 1. Mailarako bidean. Lehen partidua domekan jokatu du te Elgoibarren (12.15etan) eta itzulerakoa hilaren 25ean Ipu-rua kiroldegian.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

BARRIO autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko traslagoak

**Mugica
Ehorzketa**
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



GOTZONE MERINO (F-Stop Argazki Taldea)

"Argazkilaritzaren sustraietara joango gara"

Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren barruan, bihar 10.00etatik 14.00etara Untzagara aterako dute argazki-estudioa, nahi duenak bertan argazkia egin eta lkatz-en laguntzari esker bihar bertan erretratuak jasotzeko, musutruk. Beste berezitasunik ere izango da: Durangoko F-Stop Argazki Taldekoek kamera estenoipekoak ekarriko dituzte, oinarri-oinarrizko argazkilaritzaren sekretuak guztiarekin partekatuzko.

- Zer ekarriko diguzue bihar?

Kamera estenopeiko erraldoiarekin etorriko gara, denboran atzera egin eta argazkilaritzaren sustraietaraino joateko. Kamera, berez, barruan lagun bat edo pare bat hartzeko moduko neurria duen kutxa iluna da eta zulo txiki bat dauka, bertatik argia sartzeko. Oinarrizko baliabideak erabili auzina argazkiak nola egiten zituzten erakutsi nahi dugu. Eguraldiak laguntzen badigu, argazkiren bat egitea gustatuko litzaiguke. Kamera hauek esposizio-denbora nahiko luzea behar dute eta, horrez gain, eguna nahiko eguzkitsua izatea komeni zaigu, zuloatik argi nahikoa sartu eta argazkia egin ahal izateko. Beste kamera txikiago batzuk ere ekarriko ditugu eta, kameraren funtzionamendua hobeto ulertzeko murala ipiniko dugu, teknikari buruzko azalpenekin.

- Nolatan hasi zarete kamera estenoipekoekin beharrez?

Gaur egun jaun eta jabe diren kamera digitaletan argazkilaritza goitik behera astindu dute, orain garrantzitsuena berehalakotasuna da, argazkia egin eta berehala ikusi nahi izaten dugu. Gainera, argazki horiek goitik behera eraldatzeko teknika eta modu ugari dago. Hori ikusita, argazkilaritzaren sorburura jo eta lehen argazki horiek nola egiten ziren ikertu eta jendeari erakustea interesgarria izango zela pentsatu genuen.

- Zertarako dira egokiak horrelako kamerak? Eta zertarako ez dute balio?

Jendea erretratuak ateratzeko, adibidez, ez dira bat ere erabilgarriak. Ezin duzu inor kameraren aurrean pare bat minutuan geldi-geldirik ipini. Baina oso egokiak dira, adibidez, hiri baten erretratu egin eta kaleak hutsik ateratzeko. Jendea atzera aurrera ibilita ere, mugimenduaren ondorioz argazkian ez da inor agertuko, jendea "desagertarazi" dezakegu.

- Kamerak ikusi dituztenek zer diote?

Orain arte proba batzuk baino ez ditugu egin, bihar irtengo gara lehenengoz kalera, baina kamerak ikusi dituztenek harrituta begiratzen diete, zur eta lur geratzen dira kamerak eta batez ere horiekin lortutako emaitzak ikustean.

Ipurterre ipuin lehiaketako sariak banatuta

Eguaztenean jaso zuten saria aurtengo Ipurterre lehiaketako irabazleek, goizean Hezkuntza Esparruan Madiber magoak girotutako ekitaldian. ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako lehiaketako irabazleak Joanes Lazarobaster Arrizabalaga (LH-ko 1. eta 2. mailak), Maddi Sarasua Iturrioz (LH-ko 3. eta 4. mailak), Irati Alvarez Malaetxebarria (LH-ko 5. eta 6. mailak), Idoia Lahidalga (DBH-ko 1. eta 2. mailak) eta Lorea Urkia (DBH-ko 3. eta 4. mailak) izan dira. Bakoitzak Erein, Gaumin, Elkar, Ibaizabal, Igela eta Pamiela argitaletxeek emandako liburuekin eta Iraolagoitia liburudendak oparitutako bonoarekin osatutako liburu-sorta bana jaso du.



Madiber magoak eskainitako ikuskizunak girotu zuen sari banaketa ekitaldia. AINHOA LUZ



Ikasleak bertsoan Coliseoan

Maiatzaren 21ean (martitzenean) eta 23an (egunean) 18.00etatik aurrera herriko ikasleak bertsoan entzuteko aukera izango da Coliseo antzokian, urtero ikasturte amaiera aldera antolatzen den Umeen Bertso Jaialdian. Aurtengoa seigarren edizioa izango da eta bertan "Ahozkotasuna eta Bertsoingintza" egitasmoa lantzen jardun duten ikastetxeetako umeek hartuko dute parte: ikasturte honetan Amaña herri ikastetxea, Arrateko Andra Mari, Aldatze, La Salle Isasi eta Juan Antonio Mogel ikastetxeek egin dute bat Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen gidaritzapean bideratutako programarekin.



Hainbat bertsolari gazte iazko edizioko irudian. SILBIA HERNANDEZ

Gaur hasiko dira Abontzako jaiak

Martitzenean aurkeztu zuten Abontzako Iturriza Elkartekoek asteburu honetan ospatuko dituzten jaietako egitaraua. Beterik moduan, gastronomiak eta umeentzako ekitaldiek osatuko dute ardatz nagusia. Jaiari gaur arratsaldean ekingo diote, 18.30etan txupinazoa eta suziariak botata. Jarraian, umeendako "Txangoa" ikuskizuna eskainiko dute Patxin eta Potxin pailazoen eta, hori amaitzean, honetzeko auzokoen artean ezaguna den DJ Xaiborren saioa hasiko da. Horrez gain, 20.30etatik aurrera jai gastronomikoa hartuko du Egigurentarreneko parkeak, Mahatsondok babestutako 5. ardo-dastaketarekin eta 5. patata-tortila txapelketarekin. Eta jaien lehen eguna agurtzeko, 23.00etatik gauerdia bitartean Xaiborren DJ festak jarraituko du, Ipuruako jubila-tuen etxeko tabernan.

Zapatuan goizetik ekingo diote egitarauari: besteak beste buruhandiak, umeendako jolasak, txistorra jana eta herri bazkaria (400 lagunendako paellarekin) egingo dituzte goizetik eta arratsaldean toka eta igel-toka txapel-



Antolatzaileekin batera, udal ordezkariak ere izan ziren martitzenean Abontzako jaien aurkezpenean. SILBIA HERNANDEZ

keta jokatu da, karaokean abesteko aukera izango da, nagusiek txokolate-jana egingo dute jubilatutako etxean, Solera Eibarresak babestuta ardo-dastatze txapelketa jokatu dute, Gorriti eta bere abereak txikienentzat ikuskizuna eskainiko dute eta afarirako saiheski, oilasko izterrak eta hanburgesak parkean bertan erreko dituzte. Eguna Lisker taldearen berbenarekin agurtuko dute. Eta domekan, lore eskaintza eta Goruntz abesbatzaren emanaldia hartuko dituen mezarekin amaituko dituzte aurtengo jaiak. Egitarau zehatza 28. orrialdean irakur dezakezue (agendan).

Asteburu betea Galiziako jaiekin

Aurten 30 urte bete dituzten **Dia Das Letras Galegas** jaiak aurreko asteburu oso-osorik bete zuten Urkizu aldean, barixakuan As Burgas Galiziako Etxekoek txosna zabaldu eta domekan


itxi zuten arte. Bien bitartean Galiziako sukaldaritzak, musika eta dantzekin gozatzeko aukera paregabea izan zen eta, eguraldia lagun, jendetza batu zen jaiak iraun zuen bitartean.



laburrak

KONTZERTUA SOKOAN

Gaur gaueko 23.00etan kontzertua hartuko du Sokoia tabernak: biolinak, gitarrak eta ahotsak osatutako taldeak Celtas Cortos, Melendi, Sabina, Aute, Bob Dylan eta beste batzuren abestiak eskainiko ditu.



ZUZENEO ROCKA EZ DOK-EN


Woodstock Trio rock&roll band-ek kontzertua emango du zapatu gauean, 23.00etatik aurrera. Taldeak Rory Gallagher, Jimi Hendrix, Led Zeppelin, Gary Moore, Fleetwood Mac, Free, Mountain eta beste batzuren kantak joko ditu.

JOSE ANTONIO PEÑA ESTRELLA

(III. urteurrena 2010-V-17)



"Ez zaitugu sekula inoiz ahaztuko"
ZURE FAMILIA



○ **Hizkuntza gutxituak babes eske**

Martxoak 31 kolektiboan biltzen diren hizkuntza gutxituetako ordezkariak. Baionakoak tartean, babesa eskatu diote Unescok Parisen duen ordezkariari. Frantziako lurralde ugarietako herri mugimenduak, hizkuntzen defendatzaileak eta hautetsiak elkartziren. eragile guztien artean adostutako testua irakurtzeko. Kolektiboaren esanetan, "Frantzia hizkuntza gutxituen eta eskubideen defendatzaile sutua da nazioartean, baina, aldi berean, ukatu egiten ditu bere esku dauden gutxiengoak eta haien eskubideak. Hipokrisia da nagusi".

○ **Euskeraren mugak Nafarroan**

Aurrematrikulazioa egiteko epean, Nafarroan hiru urteko 6.436 ikaslek eman zuten izena datorren ikasturterako: gaztelaniazko ereduetan ariko dira 4.608 eta euskaraz, beriz, 1.828 (%28,4). Azken horietako 1.377k sare publikoan eta 455ek pribatuan. Datorren ikasturtean, alemanezko lehenbiziko ikastetxea jarriko dute martxan eta 61 izango dira, denera. Ingelesez Ikasteko Programak eskainiko dituztenak. Bestalde, euskaraz ikasi nahi duten guztiek horetarako eskubiderik ez dute eta Hezkuntza Departamentuak ez du egoera hori aldatzeko urratsik eman.

euskararen txokoa

Hiru antzezlan Hezkuntza Esparruan

Aurreko astean hasi zen **Debabareneko Eskolarteko XXIX. Antzerki Erakusketak** aurrera dirau eta aurten barrik talde profesionalen emanaldiekin osatutako programari jarraituta beste hiru emanaldirekin gozatzeko aukera izango da datozen egunetan. Geratzen diren hiru antzezlanak Hezkuntza Esparruko aretoan taularatuko di-

ra, 15.00etan, jarraian zehaztutako egunetan: martitzenean La Machina taldearen eskutik "Grillos y Luciérnagas" taularatuko da Hezkuntza Esparruan, 15.00etan hasita. Eguenean, berriz, "Jon Beldegabea" aurkeztuko dute Txalo antzerki konpainiak. Eta egitaraua agurtzeko Spasmo Teatrok "Ebook" lana eskainiko du.



Bertsoak plazatik gaztetera

Plazatik Gaztetera bertsolari gazteen txapelketaren hamabigarren edizioa martxa betean dago eta, iazko bideari jarraituta, aurten ere gure herrian horretaz gozatzeko aukera eskainiko digute Eibarko Gazte Asanblada Barrikoek. Eibarkoekin batera, txapelketa Deba, Mendaro, Soraluze, Elgoibar, Mutriku eta Markina-Xemeingo gazte asanbladek antolatu dute eta asteburu honetan kanporaketako bat jokatu da gurean. Biharko egitarauari 19.00etan ekingo diote, Bue-

nos Aires tabernan hasi eta Iparragirre kaleko gazteteraingo egingo duten triki-poteoarekin. 20.30etan, berriz, gaztetean bertan egingo duten afaria hasiko da (txartelak 5 eurotan salgai Buenos Aires, Depor, Karrika eta Manuel tabernetan). Bertso saioa, berriz, afalostean hasiko da, lau bikoteren parte-hartzearekin: Ion Mikel Mujika eta Aimar Goenaga; Odei Irigoien eta Imanol Lizarazu; Ander Elortegi eta Jon Arano; eta Oihana Iguaran eta Unai Mendizabal.

SM MUGICA
ITURGINTZA

K21

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...
HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxes. 943 20 72 24

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 fax: 943 202564

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, HODEI, atzo zortzi urte egin zenduazelako. Jarraitu beti alai eta irrifartsu, zure ingurukak be poztuz.



Zorionak, ANDONI, domekan bi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ANE Zusaeta, astelehenian sei urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat gure etxeko printzesari, etxeko guztien partez.



Zorionak, KATTALIN Arrasate Lasa, atzo sei urte bete zenduaz-eta. Aitxixa eta amamaren partez, gure etxeko larrosiari.



Zorionak, LOHITZUNE, gure neska polittena, bost urte bete dozuz-eta. Muxu haundi bat aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, UNAI, gure etxeko txapeldunak zapatuan zazpi urte egin zittuan-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARINA, 11 urte egin dozuzelako. Zure gurasuen, aitxixa-amamen eta, batez be, Raul nebaren partez.



Zorionak, MARIA, printzesa, bixar lehen jaunartzia egiñ eta etzi 9 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, PAULE, bixar sei urte egiten dozuz-eta. Patxo potoluak etxeko printzesarentzat. Famelixaren partez.



Zorionak, LIDE Alberdi Carracedo, hillaren 13an lau urte egin zenduazelako. Muxu pillua gure printzesarentzat.




Zorionak, SUGAR, domeka honetan bi urte beteko dozuz-eta. Askoi maite zaittugu, Pototo. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NEREA (23an urtiak egingo dozuz) eta ANE (domekan hamar beteko dozuz). Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OIER (maiatzaren 9xan urtiak egin zenduaz-eta) eta AIORA (martitzenian egingo dozuz-eta). Famelixaren partez.



Zorionak, TIA PURI (oingo astian urtiak egin dozuz) eta OLATZ (gaur bederatzita beteko dozuzelako). Muxu pillua famelixaren partez.



Zorionak, ELENE (urtebete) eta aitxixa JESUS (55 urte) urtiak bete dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JOSE MARI Arrazola eta MARI TERE Arriaga, bixar urrezko etzeiak ospatuko dozuz-eta. Jarraitu oiñ arte moduan. Muxu bat etxekuen partez.

Zorionak, ALEN eta MAIALEN (haundixak hillaren 8xan egin zittuan urtiak eta txikitxak 13an). Honek damixelok maite dittugunon partez.



Ongi etorri, OXEL Olañeta Zenarruzabeitia. Famelixa guztiaren eta, batez be, MARA arrebaren partez. Patxo haundi bat bixori.



zinea Coliseoan



(1 ARETOAN)
17an: 22.30
18an: 19.45, 22.30
19an: 20.00
20an: 20.30

"Tierra prometida"
Zuzendaria:
Gus Van Sant



(2 ARETOAN)
17an: 22.30
18an: 19.45, 22.30
19an: 20.00
20an: 20.30

"Alacrán enamorado"
Zuzendaria:
Santiago Zannou



(ANTZOKIAN)
17an: 22.30
19an: 20.00
20an: 20.30

"Combustión"
Zuzendaria:
Daniel Kalparsoro

BARIXAKUA 17

UMEENTZAKO ZINEA

17.30. "Barbie y las 12 bailarinas". El Corte Inglés-ean.

ABONTZAKO JAIK

18.30. Txupinazoa eta suziriak.

18.45. Umeendako ikuskizuna ("Txangoa") Patxin eta Potxin pailazoekin.

19.45. DJ Xaibor.

20.00. Jai gastronomikoa: 5. ardo-dastaketa.

21.00. 5. patata-tortila txapelketa.

23.00. Agurra. DJ Festa Xaibor-ekin Ipuruako jubilatuen etxeko tabernan.

BILERA

19.00. Sanjuanetarako ekitaldiak prestatzeko batzarra, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Eibarko Bizikleta Plazan (euria eginez gero, Kultur).

KONTZERTUA

23.00. Biolin, gitarra eta ahotsa: Melendi, Celtas Cortos eta abarren abestiak. Sokoa tabernan.

ZAPATUA 18

ARGAZKIA MAIATZEAN

10.00-14.00. Argazki-estudioa kalean. Kamera estenoipekoak, Durangoko F-Stop elkartearen eskutik. Untzagan.

ABONTZAKO JAIK

11.00. Suziriak. Buruhandiak.

11.30. Umeendako jolasak.

12.30. Txistorra jana.

14.30. Herri bazkaria: paella erraldoia (400 lagun).

17.00. Toka eta igel-toka txapelketa, Ipuruako Jubilatuen Etxearen atarian. Karaokea gazte eta nagusientzat.

17.30. Txokolate jana gure nagusientzat, Ipuruako jubilatuen etxean.

19.00. Sari banaketa (toka eta igel-toka).

19.30. Ardo-dastatze txapelketa. Gorriti eta bere abereak.

21.00. Lisker taldearekin berbena.

21.30. Erretegi erraldoia: saiheski, oilasko izterra eta hanburgesa.

22.00. Lisker taldearekin berbena.

MUSEOEN EGUNA

17.00. "Made in Eibar", 7-10 urte bitarteko umeentzat tailerra. Doan.

M18 PLAZARA

18.00. Eibarko Herrirak antolatuta, umeendako jolasak. Puzgarriak, tailerrak, ipuin kontalaria. Trikitilariak alaitutako pintxo-potea.

20.00. Jaialdi-ekitaldia. Bertsolariak. Abeslariak. Untzagan.

PLAZATIK GAZTETXERA

19.00. XII. Plazatik Gaztetxera. Bertsolari gazteen txapelketa. Trikipotea Buenos Aires tabernatik gaztetxera.

20.30. Afaría.

DANTZA

20.00. "Besta Berri" dantza ikuskizuna. Euskal Jaia. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

23.00. Woodstock Trio rock&roll band. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 19

TXISTULARIK

11.00. Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

ABONTZAKO JAIK

12.00. Auzoko hildakoen oroimenezko meza: lora eskaintza eta Goruntz abesbatza. San Pio X.ean.

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

MARTITZENA 21

IKASTEN

09.30. "Una visita general del medio interestelar a lo largo de la galaxia", Mireya Etxaluzeren eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKIA

15.00. "Grillos y luciérnagas" (La Machina). Eskolarteko XXIX. Antzerki Erakusketa. Hezkuntza Esparruan.

BERTSO JAIALDIA

18.00. Umeen Bertso Jaialdia. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

EUSKAL JAIA

19.00. Mahai-ingurua: "Eibarko plazia", baserritarren eta bezeroen arteko gogoeta. Arrate Kultur Elkartean.

EGUAZTENA 22

IKASTEN

10.11. Mendi-ibilaldia: Amildegien bidea (Plentzia -Algorta). Boluetarako trenaren irteera, Estaziñotik (10.13etan Ardantzán).

BILERA

19.30. "Jun Hemendik" herri mugimenduaren bilera irekia. Eibarko Bizikleta Plazan (euria eginez gero Kultur).

EGUENA 23

IKASTEN

10.00. "Música, período clasicista", Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

ANTZERKIA

15.00. "Jon Beldurgabea" (Txalo). Eskolarteko XXIX. Antzerki Erakusketa. Hezkuntza Esparruan.

BERTSO JAIALDIA

18.00. Umeen Bertso Jaialdia. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

EUSKAL JAIA

18.00. Palindromoen tailer irekia, Markos Gimeno gidatua. Arrate Kultur Elkarte.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrena taldearen bilera irekia. Portalean.

HOROSKOPOA

ARIES

Urteko sasoirik politenean murgilduta zaude. Gauza ederrak gertatzen zaizkizu, amets oro betetzen. Etorriko da buelta?

TAURUS

Lan egiteko bizi, edo bizitzeko lan egin? Ondo pentsatu, inguruak haserre dituzu-eta. Lehentasunak markatuizu.

GEMINI

Adi ibili; bestela, zeozer garrantzitsua galduko duzu-eta. Behin gertatuta, ez dizu graziarik egingo. Begiak zabaldu!

CANCER

Zu moduko jende gehiago behar da munduan. Ezer jasotzea espero ez baduzu ere, laguntzeko prest zaude beti.

LEO

Argi eduki dezazula inork ez dizula behartzen: gauzak nahi dituzulako egiten dituzu. Ez egotzi errua besteei.

VIRGO

Beste baterako, badakizu! Oso ondo dago akatsak onartzea: bide ona jarraitzeko pauso egokia da. Ez errepikatu halakoak.

LIBRA

Usaimena ez duzu hain txarto. Ezin duzu pertsona horren kiratsa jasan: normala da. Berari esaten auzartuko zara?

SCORPIUS

Ez ezazu gehiago itxaron. Etorriko da etorri behar bada, baina zure bizitza egiten jarraitu behar duzu. Eutsi horri!

SAGITTARIUS

Azken asteotako negatibotasuna atzean laga eta bide koloretsua zabalduko da zure aurrean. Ez zaitze hortik irten!

CAPRICORNIUS

Sasoia da udako oporretan pentsatzeko. Denbora falta da, baina oporrak non pasatu behar dituzun pentsatzen hasi!

AQUARIUS

Besoarekin mugimendu txarra egin eta minduta ibiliko zara hurrengo egunotan. Sendagilearengana joatea komeni zaizu.

PISCIS

Inguruko herri eta auzoetan jaiak hasi dira. Ondo, ezta? Gustatzen zaizunarekin jai guztietan egoteko gauza zara.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Maiatzaren 19ra arte**
TXOTXONGILO erakusketa. Galizia Etxean.
- ✓ **Maiatzaren 26ra arte**
JAVIER FERNANDEZ FERRERAS. Portalean.
JUAN ARMENTIAren "Barnetik. Más allá del Olimpo" argazki erakusketa. Portalean.
BOSCO MERCADALen "Fotopoemas" argazki erakusketa. Portalean.
40. NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA argazki erakusketa. Topalekuan.
- ✓ **Maiatzaren 31ra arte**
32. ARGIZAIOLA LEHIAKETA. Deporren.
DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAren argazki erakusketa. El Ambigú eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatutuetan.

lehiaketak

- ✓ **Maiatzaren 20ra arte**
ON EKIN! ENPRESA PROIEKTU ETA IDEIA LEHIAKETA.
ekingune@ekingune.com edo 943-208420.
- ✓ **Maiatzaren 23ra arte**
KAMISETEN DISEINURAKO LOGOTIPO LEHIAKETA.
jaixakherrixakherrixandako@gmail.com

hildakoak

- Victoriano Saez Abad. 70 urte. 2013-IV-2.
- Agustín Arana Barinaga. 99 urte. 2013-V-9.
- Vicenta Trokaola Bilbao. 105 urte. 2013-V-9.
- Antonio Díaz Barquiel. 75 urte. 2013-V-9.
- Miren Edurne Gaztelu Azkoaga. 90 urte. 2013-V-9.
- Juana Orobengoa Beitia. 98 urte. 2013-V-10.
- Gregorio Díaz Carabantes. 75 urte. 2013-V-14.
- Arcadia Colino Colino. 74 urte. 2013-V-15.

6	3			9			5
1				5	4		
				4		3	
	1			5		8	
7	2						4 5
		8		2			1
	5		9				
		1	8				9
7			6			2	4

farmaziak

- ✓ **barixakua 17**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **zapatua 18**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 19**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 20**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **martitena 21**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguztena 22**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguna 23**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **barixakua 24**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

jaiotakoak

- Oxel Olañeta Zenarruzabeitia. 2013-V-5.
- Niko Sierra Arzuaga. 2013-V-5.

SUDOKUA

3	9	4	8	2	5	7	6	1
2	6	5	9	7	1	3	8	4
8	1	7	3	6	4	9	2	5
5	7	6	2	8	9	4	1	3
1	2	8	4	5	3	6	7	9
4	3	9	7	1	6	2	5	8
7	5	3	1	9	2	8	4	6
6	4	2	5	3	8	1	9	7
9	8	1	6	4	7	5	3	2

AURREKOAREN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etarik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR**. Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR**. Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR**. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR**. Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR**. Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR**. Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR**. Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR**. Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR**. Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO**. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR**. Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Errekatxun. 2 logela, egongela-jangela eta komuna. Guztiz berriztuta eta jantzita. Kalefakzioa. Saltzeko premia handia. Prezioa adosteko. Tel. 659-757572.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.
– Loft bikaina salgai edo alokagai. Argitsua. 102 m² + 40 m²ko lorategia. Tel. 656-723437.

1.2. Errentan

– Logela alokagai Eibarren. Tel. 686-735525.
– Neska arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 618-354218.
– Buhardila txukuna alokagai Txontan. 5. pisua. Igoailurik gabe. Tel. 626-144098.
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 679-910991.
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 632-883925.
– Senar-emazteek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 632-450278.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Mobilhome salgai Mutrikuko Santa Elena kanpingean. 2 logela, egongela eta komuna (dutexarekin). Abantza sukaldearekin. Etxetresna elektriko berriak. Itsasora begira. Tel. 650-818642 eta 943-203091.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Industri-pabilioia alokagai Elgoibar-ko Olaso poligonoan jubilazioarengatik. Mekanizatuatarako makinaria aukeran instalazio osatuan. Tel. 649-258913.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 616-457254.
– Emakume arduratsua eskaintzen da gaixoak zaintzeko etxean edo ospitalean. 10 urteko esperientzia. Tel. 631-385949.
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko, hoteleko kamarera moduan eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta base-rian jarduteko. Esperientzia. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.
– Neska eskaintzen da 10.30etatik 16.30etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458271.
– Neska eskaintzen da 10.30etatik 16.30etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-886701.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauz ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 625-895460. Carmen M^a.
– Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauz ere). Tel. 627-768684.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. Tel. 608-866535.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 627-031640.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 671-971930.
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 691-726738.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-361252.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-234524.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-564995.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan ere bai. Tel. 618-354218.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 674-909705.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-748899 eta 685-724861.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 615-007377.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta soziedadek edo pegorak garbitzeko. Tel. 628-014327.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-255663.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 639-962219.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-004374.
– Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. Erizain-laguntzaile. Erreferentziak. Tel. 616-607121 eta 943-207183.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 606-502567.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa edo gauz. Erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-925929 eta 943-744429.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 657-396018.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 602-894478.
– Psikologoa eskaintzen da kabinete batean lan egiteko. Esperientzia helduen eta haurren psikoterapian eta taldeko terapian. Tel. 696-856439. Yolanda.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-196651.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauz eta asteburuetan ere. Tel. 638-824278.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-910991.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-883925.

4.2. Langile bila

– Estetizista behar da Eibarko ilea-paindegi baterako. Lan giro ona. Tel. 678-674250.
– Ilea-paindegirako langilea behar da. Eskolako titulu ofiziala eta esperientzia baloratu dira. Tel. 615-754621.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Emakumea eskaintzen da portugesez edo ingeles klaseak emateko. Frantsesezko klaseak jasoko litzuzke berak trukean. Tel. 662-134523.
– Arkitekto euskaldunak DBH eta Baxilergoko klase partikularrak ematen ditu: Matematikak, Fisika, Kimika eta Marrazketa Teknikoa. Tel. 615-704540.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Academy gitarra elektrikoa salgai. Estreinatuta gabe. Anplifikadorearekin, 200 euro; gabe, 180. Tel. 654-926243.
– Ostalaritzarako tresneria salgai negozio aldatetagaratik: kafetera, izotz-makina, musika aparatua (banaka ere saltzen dira). Tel. 665-720977.
– Ohe-kabia salgai, 90ekoa. Oso egoera onean. 100 euro. Tel. 628-341448.

6.2. Eman

– Hilabeteko katarra eta katemea oparitzen dira. Tel. 626-553178.
– Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Quicksilver txanozko sudadera urdina galdu zen Untzaga plazan aurreko astean. Tel. 687-472084. Ane.
– Txanozko sudadera beltza galdu zen aurreko barixakuan Telepizza eta San Agustineko bidean. Tel. 687-472084. Ane.
– Emakume belarritakoa (perla zuria eta kristalxoekin) galdu zen orain dela aste bi Elorza farmazia inguruan. Tel. 645-708093. M^a Carmen.
– Umearen urrezko pulterera (izenarekin) aurkitu dut Txaltza Zelai kalean. Tel. 610-816837.

6.4. Bestelakoak

– Umetsuarendako sehaska eta txetxekapota hartuko nuke. Tel. 696-509360.



Marta Prol Arias (21 urte, Eibar) Ikus-entzunezko komunikazioaren 4. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, HUHEZIn. Elkarrizketa honetan kontatu digu zein den bere iritzia unibertsitate honi buruz.

“HUHEZIn praktikotasuna talde lanean garatzen dugu”

– Zergatik aukeratu zenuen Ikus-Entzunezko Komunikazioa gradua?

Ikastetxean orientazioa jasotzen genuen eta ikasketetan zentratu ordez, lan munduko etorkizunean jartzen genuen fokua. Orduan argi nuen zein zen jorratu nahi nuen lanbidea, eta horretara egokitzen ziren ikasketak ikus-entzunezkoak ziren, hain zuzen.

– Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?

Karrera aukeratzea pauso bat da, eta pauso honetan jada aukeraketa bat egiten duzu. Honen ostean beste aukeraketa bat dator, eta nire kasuan deskarte bidez egindakoa izan zen. Madril eta Eskoriatza artean nenbilen eta atzerrira joatea goizegi zela uste nuen, HUHEZIn joan nintzen, urtebeteko epean hiriburura joateko asmoz. Baina unibertsitatean urte bat igaro ondoren, ikasketak hemen burutu nahi nituela erabaki nuen.

– Nola baloratuko zenuke orain arte bizi duzun esperientzia?

HUHEZIn hezkuntza sistemak ikaslea ardatz izateak dakar. Horrek inplikazioa edukitzea eragiten du eta egunero zeure burua gainditu nahi izatea. Protagonista izatea positibotzat ikusten dut eta nire erabakia berresten du.



“Teoria praktikara eramatean ikasketa prozesua sakonagoa eta errealagoa dela uste dut”

– Zelan definituko zenuke HUHEZIn hezkuntza eredia?

Hezkuntza eredia praktikotasunean oinarritzen da besteak beste. Teoria praktikara eramatean ikasketa prozesua sakonagoa eta errealagoa dela uste dut. Praktikotasun hori talde lanean garatzen da batez ere eta horregatik gelakideen arteko harremana estuagoa da.

– Non egin dituzu praktikak?

3. mailan egin nituen Madrilgo Comunica Masa publicitate agentzian, produkzioan. Aukera hori aprobetxatu nuen buruan neukan hirira joateko gogoia asetzeko eta oso gustura aritu nintzen bertan.

– Behin gradua bukatuta, zeintzuk dira zure asmoak?

Berriz ere aukeraketa bat egitea ezinbestekoa da. Ikus-entzunezkoen mundua oso zabala da eta graduan zehar mundu honetako hainbat gune ezagutzeko aukera izan dugu. Guztietatik, zinemaren mundua dut gustuko. Baina mundu hau ere oso zabala da eta zinemaren barruan zein arlo dudan gustuko erabakitzea, oraingoz, ezinezkoa zait. Nere intentzioa datorren urtean Madrilerara joatea da, zinemarekin erlazionatutako ikasketak egitera. Baina esan bezala, oraindik ez dut erabaki zehazki zer.



ESLABAN eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da. Soluzio pertsonalizatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

■ Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...

- Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberitzeak.
- Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.

ESLABANen helburua, bezeroen behar zehatzei irtenbide egokiena ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurre egingo diogunaren bermea eskaintzea.

Otaola, 27 esk. eskuma. 3º ezkerre. • Apdo. 160
20600 Eibar (Gipuzkoa)

Tel.: (+34) 943 820 407 • Fax: (+34) 943 820 724

E-mail: info@eslaban.com

www.eslaban.com